Arabako Batzar Nagusiak

Zure parlamentua!

Zer dira Arabako Batzar Nagusiak?

Araban bizi garen herritarrok guztionak diren baliabide asko ditugu: errepideak, mendiak, kultura, kirola, garraiobideak, adinekoentzako laguntzak, nekazaritza, etab. Imajinatzen duzu arabar guztiok eztabaidatuko bagenu gai horietako bakoitzari buruz? Badirudi ezinezkoa litzatekeela akordio batera iristea. Horretarako daude Batzar Nagusiak, Arabako Parlamentua. 51 batzarkidek osatzen dute, eta arabar guztiek (18 urtetik gorakoak) aukeratzen dituzte lau urtean behin.

Horretarako, Arabako mapa hiru barrutitan banatzen da. Horrela, Gasteizko Kuadrillak 51 pertsona horietatik 39 aukeratzen ditu, Aiarako Kuadrillak 5, eta gainontzeko 7ak Arabako Lautadako, Guardia-Arabako Errioxako, Añanako, Gorbeialdeko eta Kanpezu-Arabako Mendialdeko kuadrillek aukeratzen dituzte, Lur Jareak deitzen den barrutian elkartuta.

51 ordezkariak Gasteizen, Batzar Nagusien egoitzan eta Probintziako Jauregian bildu ohi dira, eta urtero, maiatzean, Arabako Lurralde Historikoko herri batean ere egiten dute bileretako bat.

Araban bakarrik daude Batzar Nagusiak?

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako lurralde historikoek erakunde berberak dituzte herritarrak ordezkatzeko. Hiru lurraldeetako eskubide historikoei esker, gaur egun gobernu propioa (foru-aldundiak) eta parlamentua (batzar nagusiak) izateko aukera dute. Kasu bakarra da Estatu osoan.

Horrela, Euskadiko erakunde-sistemak bi maila desberdin ditu: lurralde historiko bakoitzeko probintzia-maila eta erkidego komuna (Eusko Jaurlaritza eta Eusko Legebiltzarra goragoko mailan daude). Gernikako Autonomia Estatutuak eta Lurralde Historikoen Legeak onartutako sistema hori Araba, Bizkaia eta Gipuzkoaren arteko berdintasunean oinarritzen da.

Nola funtzionatzen dute Arabako Batzar Nagusiek?

Batzarkideak talde desberdinetakoak dira, hau da, Arabaren orainak eta etorkizunak izan behar duten moduari buruzko ideia berberak dituzten pertsonek eta hauteskundeetara alderdi politiko edo koalizio berean aurkezten direnak. Talde horietako bat osatzeko, gutxienez 3 ordezkari behar dira, eta talde horietako batek zenbat eta boto gehiago lortu, orduan eta ordezkari gehiago izan.

Arabako Batzar Nagusietako 51 kideak ia astero biltzen dira Osoko Bilkuran, baina, horrez gain, batzarkideek bilera murritzagoak egiten dituzte, batzordeak deiturikoak. Horietako bakoitza gai zehatz batzuetan espezializatuta dago eta, horrela, lana eta erabakiak hartzea errazten dute. Era berean, taldeetako bozeramaileak ia astean behin biltzen dira erakundearen egutegia antolatzeko, eta gauza bera egiten dute Mahaiko 5 kideek (presidentea, 2 presidenteorde eta 2 idazkari), horiek baitira erakundea zuzentzen dutenak.



Eta zertaz hitz egiten dute elkartzen direnean?

Batzarkideek Arabarekin eta arabarrekin zerikusia duen guztiaz hitz egiten dute. Legebiltzar guztietan gertatzen den bezala, Araban bizi garenok bete behar ditugun arauak egitea eta onartzea da bere eginkizun nagusia (Batzar Nagusien kasuan, foru-arauak deitzen dira. Urte bakoitzeko Foru Araurik garrantzitsuena Lurralde Historikoko Aurrekontuak onartzen dituena da, eta horrek adierazten du dirua zein obra eta zerbitzutarako erabiliko den.

Gainera, Batzar Nagusiek lau urtean behin aukeratzen dute Arabako ahaldun nagusia, Foru Aldundia zuzentzen duena (Arabako gobernua), eta, behin aukeratuta, bere lana kontrolatzen dute eta Lurralde Historikoaren garapenerako eta herritarren ongizaterako beharrezkotzat jotzen dituzten ekimenak egitera bultzatzen dute.

Baina hori ez da guztia, Batzar Nagusiei ere iristen baitzaizkie arabarrek gure lurraldea hobetzeko proposatzen ditugun ekimenak, eta horiek gauzatzeko modurik egokiena aurkitu behar dute.

1. ariketa

Batzar Nagusiak ezagutuz

Bilatu hitz hauen esanahia hiztegian edo Interneten:

a . demokrazia

.....
.....

b . botoa

.....
.....

d . parlamentua

.....
.....

e . Lurralde Historikoa

.....
.....

Bi hauteskundeen artean dagoen denbora-tarteari legegintzaldia deitzen zaio, baina, zenbat irauten du legegintzaldi batek Arabako Batzar Nagusietan?

☐ Urte bat ☐ Bi urte ☐ Hiru urte ☐ Lau urte ☐ Bost urte

Demokrazian, herritarrek erakundeetan dituzten ordezkariak boto unibertsal, aske, zuzena eta isilpekoaren bidez aukeratzen dira. Zer esan nahi dute hitz hauek?

a . unibertsala

.....
.....

b . askea

.....
.....

c . zuzena

.....
.....

d . isilpekoa

.....
.....

Arabako Batzar Nagusiek aukeratzen dute, beren kideen artean, nor izango den Arabako ahaldun nagusia. Lehenengo bozketan, hautagai-zerrendetako bat gehiengo osoz bozkatu behar da. Inork gehiengo hori lortzen ez badu, bigarrenez bozkatuko dute, eta gehiengo soilez boto gehien dituen hautagaitza hautatuko dute.

Zer esan nahi du ‘gehiengo osoa’ esamoldeak?

.....
.....
.....

Eta ‘gehiengo soila’ esamoldeak?

.....
.....
.....

Batzar Nagusiak eta gizartea

Parte hartu al dezakegu guk Arabako Batzar Nagusietan erabakitzen den horretan? Erantzuna baiezkoa da:

▪ Herritarrek arabar guztiei eragiten dieten ekimenak proposa ditzakegu. Horretarako, adinez nagusi direnen %2k ados egon behar dugu (5.000 pertsona inguru). Asko dirudi, baina kontuan izan behar dugu onar daitezkeen foru-arauek Arabako ia 330.000 biztanleengan izango dutela eragina, eta horregatik garrantzitsua izan behar dute pertsona horietako askorentzat.

▪ Bestalde, Arabako Batzar Nagusietako batzarkideek eta talde politikoek posta elektronikoak dituzte, eta arabarrok helbide horietara idatz dezakegu zerbaitekin ados ez bagaude, behar bezala egiten ari direla ziurtatzeko.

▪ Arabako legebiltzarrak Interneten ere badu presentzia. Erakundearen webgunean (www.jjggalava.eus) Batzar Nagusiei buruzko informazio guztia aurki dezakegu eta, gainera, bertan egiten den edozein bilera zuzenean jarrai dezakegu.

2. ariketa

Eskola, nire lehen parlamentua

Zergatik ez ditugu Batzar Nagusiak gure klasera ekartzen eta batzarkide bihurtzen egun batez?

- Guztion artean 3 edo 4 proiektu proposa ditzakegu gure ikastetxearen funtzionamendua hobetzeko.

- Proposamenean aipatu behar dugu zergatik aukeratu dugun proiektu hori. Ez dezagun ahaztu zenbat eta pertsona gehiagok jaso onura, orduan eta gehiago lagunduko duela zentroa hobetzen.

- Ondoren, gainerako ikaskideei arrazoi horiek azalduko dizkiegu (adibideak, marrazkiak edo argazkiak erabil ditzakegu)

- Ziur iritzi desberdinak egongo direla, talde bakoitzak horrela pentsatzera bultzatzen duten arrazoiak azaldu ahal izango ditu.

- Azkenik, proposamen horiek guztiak bozkatuko ditugu, Arabako Batzar Nagusien osoko bilkura batean bageunde bezala.

Eta egoitza... beti egon al dira hor Arabako Batzar Nagusiak?

Ez, ez. erakunde honek 1463an jaio zen eta ez zuen egoitza propiorik izan 1844 arte. Ordura arte, batzarkideak herriak uzten zizkien aretoetan, elizetan, pertsona garrantzitsuen etxebizitzetan eta abarretan bildu ziren. XIX. mendean eraiki zuten lehen egoitza, Probintziako Jauregia, gaur egun Arabako Foru Aldundia hartzen duen Gasteizko eraikin enblematikoa.

Eta, orduan, oraingo egoitza?
Prado kaleko eraikina (ate gorriena), 1868 eta 1881ean familia etxebizitza moduan eraikitako bi etxeen elkartzearen ondorio da. Urteetan zehar, katedral berria diseinatu zuten arkitektoentzako bulego, Gasteizko familia ezberdinentzako etxebizitza edo epaitegi baten egoitza bezala balio izan zuten. Gainera, gaur egun batzarkide taldeek bulegoak dituzte alboko eraikinean, Vicente Goikoetxea kalean.

3. ariketa



☐ Arabako Batzar Nagusietako agintari nagusia da. Eztabaidak zuzentzen ditu.

☐ Batzar Nagusiek aukeratzen dute, eta Arabako Lurralde Historikoko gobernua, Foru Aldundia, zuzentzen du.

☐ Ordezkaritza- eta eztabaida-organo gorena da, eta 51 prokuradoreak biltzen ditu.

☐ Bilera txikiago horietan, gaiak gaika banatzen dira, osoko bilkuraren lana errazteko.

☐ Batzar Nagusiek onartuta, arau horiek nahitaez bete behar dituzte arabar guztiek.

☐ Batzar Nagusietako 51 kideetako bakoitza da. Herritarrok lau urtean behin aukeratzen ditugu.

Arabako Batzar Nagusiak
Juntas Generales de Álava

Vicente Goikoetxea 2, 01008
Vitoria-Gasteiz
Tlfn. 945 125 100

www.jjggalava.eus